MONDRAGON UNIBERTSITATEA

**Kirol Zerbitzua**

Albisteak

# "Emakumea eta jarduera fisikoa" gaitzat hartuta egingo da argazki lehiaketa

2014/11/26




Aurtengoa XIV.edizioa izango da Mondragon Unibertsitateko Kirol Zerbitzuak argazki lehiaketa antolatzen duela. **Gaia "Emakumea eta jarduera fisikoa"** izango da eta **lanak 2015eko martxoaren 27a arte aurkeztu daitezke.** Bi sari banatuko dira:
bata **100€koa argazkionenarentzako** eta bestea **200€koa bilduma onenarentzako**.

**Parte hartzea oso erraza da**. Irakurri zeintzuk diren argazki lehiaketan parte hartzeko oinarriak Kirol Zerbitzuaren webgunean eta bidali zure argazkiak *kirolak@mondragon.edu* helbidera.
Gainera, partaide guztien argazkiak webgunean jarriko ditugu ikusgai, guztiok gozatu ahal izateko.
Gonbidatuak zaudete parte hartzera!




**OINARRI ARAUAK**

**1. PARTE HARTZAILEAK**
14/15 ikasturtean Mondragon Unibertsitatean matrikulatutako ikasleak eta bertako langileak.

**2. GAIA**
Emakumea eta jarduera fisikoa.

**3. MODALITATEAK**
- Gehienez 3 argazki aurkeztu ditzake egile bakoitzak, kolore edota zuri-beltzean.
- Argazki eta bilduma bakoitzak izenburu bat izan behar du.
- Argazki onenaren saria lortzeko aurkeztutako argazki guztiek hartuko dute parte.
- Bilduma onenaren saia lortzeko beraien artean erlazioa duten 3 argazki aurkeztu beharko dira.

**4. SARIAK**
- 100€ argazki onenaren saria
- 200€ bilduma onenaren saria

**5. LANAREN BETEBEHARRAK**
Argazkiak jatorrizkoak eta esklusiboak izan behar dute eta argazkiak globalki ukitzea onartuko bada ere, ezingo dira gehitu edo kendu bere jatorrizko konposizioa aldatzen duten elementuak.

**6. LANAK AURKEZTEA**
- Artxibo guztiak JPEG formatukoak izango dira eta ahalik eta kalitate handiena izan behar dute.
- Argazkiak USB batean edo *kirolak@mondragon.edu* helbide elektronikora bidalita aurkeztuko dira.

**7. AURKEZTEKO EPEA**
2015eko martxoak 27, ostirala

**8. EPAIMAHAIA**
Kirol Zerbitzuak adituen batzorde bat osatuko du eta berau izango da ebazpena emateko eskubidea izango duen epaimahaia. Argazki guztiak Mondragon Unibertsitateko Kirol Zerbitzuaren webgunean izango dira ikusgai.

**9.EBAZPENA**
Argazki eta bilduma irabazleak zeintzuk diren apirilaren 10ean argitaratuko dira Kirol Zerbitzuaren webgunean.

**10. JABETZA**
Aurkeztutako argazki guztien jabetza MU-k gordeko du. Baita mugarik gabe argitaratu edota erreproduzitzeko eskubidea ere.

*www.mondragon.edu/eu/kirol-zerbitzua*